


Masturbazioaren aurkako zerealak

BAIN NEWS SERVICE



Ezkerrean, John Harvey Kellogg (1852-1943) mediku estatubatuarra. Alboan, Kelloggek sortutako zereal marka ezagunaren kaxa bat, 1950eko hamarkadakoa.



MICHIGAN (AEB), 1888. Battle Creek-eko Sendategiko zuzendari John Harvey Kelloggek *Auto-abusua*ren eta horren ondorioen aurkako tratamenduak, zahar eta gazteentzako datu argiak lana kaleratu zuen. Kellogg masturbazioaren aurkako ekintzaile sutua zen. Gizakiaren gaitzik larrietakoa zen harentzat: “Izurriek, gerrak, baztangak nahiz antzeko gaitxotasunek ez dute onanismoak adinako emaitza tamalgarririk eragin gizakiengan. (...) Uteroko minbizia, gernu aparatuko gaitxotasunak, inpotentzia, zorotasuna eta ahultasun mental zein fisikoa eragiten ditu”. Tratamenduak ez bazituen ospitaleko gaixoak sendatzen, medikuak garbi zeukan zergatik: eri ezkutuan masturbatzen zen.

Baina masturbatzearen efektu txar guztiak saihesteko irtenbideak ere proposatu zituen liburuan. Mutiko txikiarentzat erremediorik eraginkorrena erdaintzea zen, batez ere ebakuntza anestesiarik gabe egiten bazen; zenbat eta oinaze handiagoa, orduan eta gogo gutxiago izango zuten bekatuari emateko. Neskatoentzat “sendabidea” are zuzenagoa zen: kloriaren fenol aratz bidezko ablazio kimikoa.

Zorionez, garaiko gizarte estatu-

batuar puritanoarentzat ere muturrekoegiak ziren Kelloggen neurriak, eta ez zuten aplikazio praktikorik izan. Baina sendagileak ez zuten amore eman onanismoaren aurkako gurutzadan, eta zeharkako bidea topatu zuen gizon-emakumeen irriks kaltegarria apaltzeko: dieta.

“Txerrikiz, ogiz eta pastel gozoz elikatzen den, tea edaten duen eta tabakoa erretzen duen pertsonarentzat errazagoa da hegan egitea pentsamendu garbiak izatea baino”, zioen. Estatubatuarren dietak lizunkeria sustatzen zuela uste zuen, eta dieta garbiago batek bekatuak ere garbi zitzakeela. Hala, herrikideen elikadura ohiturak aldatzea erabaki zuen, baita goiz goizetik, gosaririk bertatik hasita, lortu ere. 1897an zereal integral deshidratatuak ekoizten eta merkaturatzen hasi zen. Eta 1906an zerealen inperio erraldoiaren lehen harria ipini zuen: Corn Flake Company sortu zuen. Gaur, eguneko 5,5 milioi pakete Corn Flakes kontsumitzen dira munduan. Baina masturbazioaren ondorioei buruzko Kelloggen teoriak inolako oinarri zientifikorik ez dituela enpirikorik frogatzen jarraitu du gizadiak. ■



Arrastoak

Medikuntzaren sekreturik garestiena

HERMAN BOERHAAVE (1668-1738) mediku, botanikari eta humanista holandarra Europa-ko medikuntzaren pertsonaia nabarmenetakoa izan zen bere garaian. Kontzeptu klasikoak eta XVII. mendean agertutako teoria patologikoak bateratzen saiatu zen, eta Leideneko Unibertsitatean hainbat katedra bete zituen. Bere ekarpenak bi lan nagusitan bildu zituen: *Institutiones medicae* eta *Aphorismi*.

Baina hil ondoren lan berezia utzi zuen oinordetzan: *Medikuntza artearen sekreturik eskusibo eta sakonenak* izenburuko liburu zigilatua. Enkante publikoan saldu zen liburua, oraindik zigiluaz itxita, eta 20.000 dolar urretan ordaindu zituen erosleak, obraren egilearen ospeak eta lanaren titulu iradokitzaileak bultzatuta.

Jabe anonimoak zigilua hautsi zuenean, liburu ia hutsa topatu zuen. Lehenengo orrian ohar bat zegoen idatzita, baina gainerako orri guztiak garbi-garbi zeuden. Eta honelaxe zioen hasierako oharra: “Burua fresko eta oinak bero atxiki, eta munduko medikurik onena pobretuko duzu”. ■



JOHAN WILHEM KAISER